

СІМ

ЗАІІЗАІІЛІК

- MARXISMA KLASIKUAN sujetibuak ia beti kolore hits negatibua zuen. Meakaberrik, itxuraz, oraindik ematen dion berbera, ausaz. Baina, marxismatik landa ere sarri halaxe erabiltzen da. "Hori sujetibua da" esateak, oinarririk gabekoa da, esatea haina dirudi. Baina, -marxismaz ari bagara- sujetibuari kutsu hori sinplifikazio politiko batek eman zion, eta sobiet-marxismak finkatu zuen. Ez da marxismaren nahitaezkoa.

Garbi jokatzeko, sujetu/objetu arloa marxisma klasikuaren hiru mailatan ikusiko dugu : ezagupide teoriarik, filosofiaren historian eta zabalkunde edo propagandako usadioan. Ezagupide teoriarik eta filosofia historian, printzipialki gutienez, elkarren osagarriak dira. Badakigu Leninez gero objektuari (ekaiari) erabateko lehentasuna aitortuko zaiola, eta sujetuari inportantzia guti utziko zaiola beraz. Sujetuarik pasibu dirudi (ik. Kolakowski liburuarik hitzaurrea). Zabalkunde-rarik marxismatik, ordea, sujetuari bere inportantzia kendu ezezik, paper edo egiteko gaizto bat jokoerazten zaio. Alderdiaren ortodoksiatik aldentzen diren joera guzti-ak "desbidazio sujetibista" deklarazten dira. Baina, goazen banan-banan.

- EZAGUPIDE TEORIAKOAN (edo epistemologiarik) : errealitate objektibua pertsonongandirik kanpora, gurek zerikusirik gabe ta bere izateko modu propioz dagoenari ohi zerit-
tzan. Gizonon parterik gabe dago. Hau da : "berezko izaera"-duna da, hots, ekai edo materia, naturalezta (gizona baino lehenagokoa). Edo "berezko lege"-duna da, alegia, zure ta nere menpean ez dagoena ta berak zu ta ni bere baitan eta menpean gaduzkana: produzio iharduketa, produzio indarrak eta harremanak, gizartea, historia. Horiek ez ditugu zuk eta nik egiten, baina gu horietxek egiten gaituzte, eta horiek egiten gaituzten bezalakoxeak omen gara. Errealitate objektibua gizonaren esku-hartzerik gabekoa da ta, batez ere, materiak berak emana da. Kontzientzia bera ere objektibu izan daite-
keela, agerian dago, marxisma klasikuaren arabera kontzientzia materiaren dohaina de-
la gogoratzen bada : kontzientzia ez da materiak bere burua ezagutzea besterik. Or-
duan kontzientzia zuzenak objektibutasun ia-ia automatikoa du. Marxisma klasikuaren
eskuliburu batetan honela irakurtzen da : "La verdad objetiva -escribio Lenin- es un
contenido de nuestros conocimientos, que no depende de los hombres ni de la humanidad".
Hitz batetan : "errealitate objektibua, giza kontzientziatik aparte ta independiente
izanez eta honek irudikatua, kopiatua" da (Lenin).

Errealitate sujetibua zer den, ez dago hain garbi marxisma klasikan. Kontzientzia,
batik-bat, sujetibua da. Baina, sujetibu izateko moduak eta moduak daude.

Kontzientzia, sujetibu izanez, errealitatearen espilu (kontraespila-
dura) objektibua ere izan daiteke (1) : zientzian, esaterako ; eta moralean ere, kla-
se errealitateari klase neurriko espilu eginaz (moral burgesa, adibidez, burgesiaren
espilu objektibua da). Ta espilu ez-objektibua ere izan daiteke (2) : erlijioan, adibi-
dez, hau errealitate oker baten espilu okerra baita (moral burgesa, alderantzi-
z, er-
realitate oker baten espilu zuzena litzateke). Horregatik, batzuek, erlijioari, kon-
t-
zientzia sujetibu ez, baino kontzientzia sujetibista esanen liokete. Baina, ideologia
marxista, esate baterako, kontzientzia zientifikoa ta objektibua litzateke. Gehiago :
Leninek gauzen oharpenari "izadi objektibuaren irudi sujetibua" zeritzan. Baina, su-
jetibu izate honen objektibutasunaz Lenin bezalako errealista (epistemologikoa) batek
ez du inoiz dudatu : arbolak ba ikusten badut, nik, sujetu honek, ikusten dut eta su-
jetibua da ikustea ; baina objektibuki arbolak bat ikusten dut, ikusi. Nire ikustea
sujetibua da, ikusia objektibua. Gehiago ere : egia objektibuz ezezik, egia absolu-
tuaz ere mintzatu izan da Lenin, gizonak egia absolutuak dakizkiela baitetsiaz. Ha-
l-
lare ezagupena beti sujeturen batena izaten da, edo, nahiago bada, ekaiak berak su-
jeturen baten bidez emana sujetibua.

Horrenbestean ez dago problemarik. Garbi dago sujetibuak eta objekti-
buak ez dutela elkar ukatzen. Ez dira bata bestearik kontrarioak. Gainontzekoan, fi-
losofia moderno guztian hala da hori, Kanten ondorengoez gero behintzat, eta Fichte-
z gero batez ere. Honexek bakarrik ere aski dirudi, hortakoz, esate baterako, nazio
arazoazkoan sujetibu/objektibu konzeptuak ongi ulertzeko ta "sujetibutasun" dionari

"sentimentalismo" edo ez ulertzeko, Meakaberrik susmo txarren batzuk lehendik ez balitu. Eta, beraz, gizarte jakin baten kontzientziari hemen, lurralde honetan, "euskal eitea" ematen dion guztiak (historia, hizkuntza, usadio, tradizio ta beste denak) objetibutasunik ez duela esatea, oraindik ez zaio inori burutik pasa. Sujetibu ta objetiburen artean ez dago nahitaezko elkarren kalterik.

Hortik dator nazio arazoazkoan ere sujetu/objeturaz mintzatzea. Nik neuk, halare, konzeptuoi ez diet zehatz-mehatz esanahi ta usadio klasiku huraxe eman nahi izan. Eta Altzürükük ere ezetz uste dut. Bixtan dago zergatik : konzeptu tresneria horren azpian dagoen, eta esandako guti hortan bertan soma daitekeen dogmatikagatik. "Objetibisma" horrek baitakar, hain zuzen, marxisma tankera klasiku dogmakoaia. Sujetua egon badago, baina zeregin guti uzten zaio. Gure ustez, sujetu alde itxuragabeki murrizten da. Eta sujetua bere objetuarekin "dia-logos" bizian eta elkar eragipen bizi-bizian ari ez bada, "dia-lektikarik" ere ez da ari. Horra gakoa. Hori, ordea, marxisma guztiko problema dugu, eta ez nazio arazoko problema propio ta espezialik. Gu geu nazio arazoak asko kezkatzen gaitu. Kexu gara marxismak (Marxek nahiz sobietar Maisuek) nazio arazoa bere neurrian ulertu ez omen dutelako. Garatek (1) eta Iztueta-Apalategik (2) azterketa bikainak egin dizkigute hori erakusteko. Azterketaok nazio arazoko marxismara mugatu zaizkigu. Nire ustez, hagitx orokorragoa da problema ta ez dago nazio arazoko pundutxora mugatzerik, mugapen metodiko beharrez izan ezik behintzat. Problema ez baita marxismak nazio arazoa ez ulertzea, edo-ta marxismak nazio arazoa zergatik ulertu ez duen. Askoz orokorkiango, problema, azkenean, hauxe da : ea zergatik, sujetua tartean denean eta garrantzia duen guztietan, marxisma larri-larri edo burua galdurik dabilen beste hainbeste ta hainbeste problema ulertzeko ere (ta horien artean nazio arazoa ulertzerakoa ere bai). Nabarmenenik irudimenarekin zerikusirik duen gehienean ageri da hori : arte, literatura, mitologia eta abar. Nazioak gizonak baino gehiago inporta ez bazaizkigu behintzat, planteamolde orokarra honela jarri behar genukeela iruditzen zait. Jakina, planteamolde orokor honen barruan, nazio arazoaren edo kultur eta arte gorabeheren planteamolde propioak zehazkiago ere aztertu beharra dago. Planteamolde orokor hura ez baita problema konkretu bakoitzaren berezitasunetaraino ailegatzeko. Sujetu/objetu aipatze haren marxismari. "Marxismak" abertzaletasunaz arteaz, literaturaz, erlijioaz, moral burgesaz eta, erabat, "gaignegituretaz", gure artean barreiatzen ari direnak ikusiaz gero, iritzi edo superstizio hauk, guztiak hain zuzen, nondik nora sortu diren, galdatu beharra dago. Pundu guztion lotura berehalaxe igarriko duzu, nazio arazoaz aritu hala kulturaz aritu, beti gauza berdinak eta arrazoinbide berberak esaten baitira. Beraz, iturburu komuna bilatu behar da. Ta honela irixten gara sujetu/objetu haien begiztatzeraz. Nire ustez guztion iturburuasi objetibisma ezagun bat baita. Hortik dator sujetua aipatzea. Baina bere inportantzia batez ere historia filosofian ikusten da.



(1) G.M. GARATE, Marx eta Nazioa, ETOR 1972.

(2) P. IZTUETA / J. APALATEGI, Marxisma eta nazional arazoa Euskal Herrian, ELKAR 1974.

- HISTORIA FILOSOFIAN, orobat, marxisma klasikuak faktore objetibuak eta sujetibuak bereizi izan ditu. Baina, goiko eskema bera ta problema berberak daduzkagu beti ere.

Jendeari burrukara eragiteko sarri esaten da - ta marxismaren aksioma bat horixe da - historia ez dela bere gisa gertatzen, gizonek egiten dutela, ta egin egin behar dela. Horra sujetuaren inportantzia. Bestalde, gizonek ez dute berek nahi duten edo nahi luketen bezalako historiari lortzen. Historiak bere legeak ditu, lege objetibuak, eta gizonek nolnahi ahaleginda ere, historiak bere legeon bideari segituko dio. Legeok nahitaezkoak eta objetibuak omen dira. Horra gizona lege batzuk bete beste zereginik gabe. Azken finean legeok produzio moldearen legeak ditugu.

LANGILEA HERRI BATETAKO SEME BEZALA...

Honekin, besterik gabe, ohar bat aurrera nezake : langileak (produzioaren sujetuak), automatarik ez baita, ez eta lan makina soilik ere, aldian aldiko ta lekuan lekuko bere dohainak ditu. Bere aiurri, hizkuntza, eta abar. Engelsen hura radikalkiago esaterik ez dago : "arraza ere faktore ekonomiko bat da". Produzioaren "sujetu objetibu" hau oraingo euskaldun marxisten batzueri hainbeste gustatzen zaien "gizon konkretu" huraxe bera da beti. Produzioa, lehen-lehenik, Naturalezarekiko ihardun bat da, eta elkartasunean burutzen den ekintza gainera. Marxek ondo ikusi zuen ba, gizonek, produzioari ekiteko ta lanerako, beren artean harreman jakin batzuek elkar hartzen zutela, "y a través de éstos vinculos y relaciones sociales, solo a través de ellos, es como se relacionan con la Naturaleza y como se efectúa la producción" (nire azpimarkatua). Lanaren aurretiazkoak ditugu harremanok, aurre-baldintzak. Gizarteaz bat eginik produzioan ari den gizona, bat egite honen arabera ari da, eta produzioak are bat egitenago du bere gizarteaz. Harreman multzo honi somarioki arraza deritzateke, nahi bada (Marxen hitzez jarraitzeko), edo-ta herritasuna, egungo eran nahiago bada : "odol, hizkuntza ta ohituren batasuna" Marxek berak aipatzen zuen. Marxek hau dena ez zuen gehiago landu. Ikusten zuena hauxe baitzen : guti batzuek produzioaren fruitu denak harrapatzen zituztela. Gutienago hau kulturaren aberriaren eta denaren jabe egiten zela, ta langile "jende xeheak" ez kulturarik, ez aberririk eta ez ezer ez zuela. Ez zuela fruiturik bereganatzen. Problema honi atxiki zitzaion, hortakotz. Halare, produzioaren xedea ez da langilea bere gizartean integratzea besterik. "Bere gizarte" hori Marxentzat franko abstraktua ta, horregatixe, biziki unibertetsala zela ere badakigu. Herritasunaz eta garai hartan gauza konkretu guti baitzegoen garbi. Hizkuntzaz, adibidez. Halabaina, printzipio hori zutik dago : langilea herri batetako seme bezala aritzen dela, ez Robinson gisa, eta hain zuzen herri hortakoxe semeagotzeko ari ere. Produzicari sujetu bezala ekin dionak produzioaren buruan dohain horixe aberasturik - hots, "sujetuago" - irten behar luke. Arrazoiéz esaten baita, gizonak lanaren bidez burutzen duela bere burua.

Orduan, ez dakit "sujetibu" hitzak Meakaberri zergatik ikaratu behar duen. Sujetuok, izan ere, euskaldun hala txino izan daitezke. Baina produzio iharduneko objetuak, lantzeko materiala (ikatz edo burdina, adibidez) eta lantresnak, ez euskaldun eta ez txino izan daitezke, Euskal Herrikoak nahiz Txinakoak izan arren. Euskaldun hala txino izatea, izan ere, "sujetuen" gorabehera da. Eta guztiz objetibua, noski. Lanerako aurre-baldintza jakina besterik ez da ta. Beraz, Meakaberri ez bedi kezka : ez gaude herririk gabeko gizarte bila inora joatekotan. Aitzitik, herritasunari ere begiratu behar zaiolakoan, esaten dugu, sujetu aldeari ere begiratzeko ta ez produzio moldeari bakarrik.

Guzti honek ere aski dirudi Euskadiko askatasun burrukaren alde sujetibu ta objetibuetaz inor mintzatzekoan, konzeptuok inor ez larritzeko. Esanahi hain ikaragarrikerik ere ez baitzaie eman. Berriro aitortuko dut, halare : nik neuk ez ditut sujetu/objetu konzeptuok klasikuen modu berberean erabili, konzeptuoi haiek eman dien desarroilaera, dagoen-dagoenean, onartu ezinezkoa iruditzen zait eta.

Desarroilaera horregatixe, hain zuzen, konzeptuok norbaitek nekez ulertzea erraz uler daiteke, errerealisma pixka batekin. Errealisma errealtateari begiratzea da. Eta marxismaren errealtatean goiko guzti horrek aplikazio guti du. Aitortu behar da hori. Gaitz hau Marxen egunetan bertan hasia da. Eta bere garaian Engelsek deitoratua da, orobat. Marxisma klasikuak produzioaren produktotzat daduzka gizona ta gizartea. Baina biok produzioaren sujetu ere badira.

Produzioaren azken sujetua gizartea da. Baina sujetu honekin gauza asko gerta daiteke. Bat haxe : gizarte guztia sujeturik ez izatea, alegia. Gizarte hortan talderen bat edo klaseren bat sujetu bakar bezala bera altxatu delako, gainerakoak mendean hartuaz eta menpetasun hortan lanera bidaliaz. Azkenekuok beste haien tresna bilakatzen dira. Lan-indarraren sujetu dira, baina ez lanaren beraren sujetu: esana egingo dute, beren lanik ez, eta fruituak bereganatzerakoan ere beste sujetu harek uzten diena bakarrik bereganatuko dute. Beraz, gizona bere buruaz bestenatzen da, alienatzen da, eta bere lanak ez dio gizartean esku-harmerik emango. Egiatzko sujetua aberasten da, baina sujetu behar zukeen langilea ez. Kultura, artea ta beste dena klase nagusi haren pribilejio da. Hau da Marx eta marxistak gehien arduratu dituen kasua.

SUJETUA BEREGAIN ETA BESTEREN MENPEKO HALABER...

Baina, hortik aparte, sujetu izateak neurriak eta neurriak izan ditzake. Sujetu oso izan liteke, sujetu erdi izan liteke. Sujetua beregain ta libre izan liteke, besteren menpeko halaber. Gizarte batek bere harreman batasuna modu askotara gal lezake. Orduan, beste hau ere gerta daiteke, nik uste. Sujetutasuna akaparatu duen talde horrek zenbait eratan bere burua herriagandik urruntzea, nortasun arrotz bat hartuz, edo-ta bere burua saltzea edo galtzea ere. Politika mailan : herri baten beregaintasuna galtzera utz daiteke, edo kanpotik ere honda daiteke, herri hori poderio inperialista baten azpira eroriaz. Bere lanak ez du gizarte hori bere bizitza politikoaren sujetu bihurtu ahal izango. Ekonomia mailan : herri bat besteren baten kolonia edo kolonia antzeko bihurtzen bada. Bere lanaren sujeturik ez da halako gizartea, eta, esate baterako, monokultiboan aritu beharko du. Kultura mailan : sujetu den klase nagusiak herrikoa ez, baino herbesteko kultura ontzen duela. Batzutan hori ez da klase nagusi baten egitadarik, historiaren erremediorik gabeko ondorena baizik (oraingoz erremediorik gabekoa). Afrikano anitzek ontzen du frantses kultura. Afrikatik eta Asiatik, baina Hego Ameriketatik ere bai, eten gabe heltzen zaizkigu "kultur kolonialismaren" salaketak. Gizarte haiek guziz "europartu" dira eta beren batasun kulturala xehakaturik dago. Mexikotik ongi ezagutzen ditugu Riberaren eta ahaleginak "arte mexikano" bat sortzeko, mentalitate mexikanoaren arabera, herri mexikanoari dagokion espresio batasun baten bila : mundu guztiko ezkertiarrek askatasun mugimendu bezala goستن zuten enpeinua huraxe. (Oteitzak, berriz, euskal "ezkertiarak" susmo txarrez betetzen ditu !). Ezkertiar guztiek txalotzen dituzte afrikanoen eta asiarren ahaleginak beren kultura sortzeko. Eta abar. Memmi aipa liteke hemen. European bertan ere ezagutu dira horrelakoak. Erdi Aroan administrazioa, eskolak, E-liza ta feudal jauntxoak latinaz baliatzen ziren (herriko hizkuntza denek jakin arren) eta herriak beregana ezin zezakeen kultura ontzen zuten. Ingalaterrako, Errusiako, Alemaniako feudal jauntxoek hizkuntza mendez-mende frantsesa izan da gero. Eta literatura frantsesak herrialde horietako Gorteen eta Nobleziaren laguntza izan du. Bitartean herri horietako kultura bazterrera utzia zegoen. Stalinek axolagabekeria ta abusadio zeritzan jokabide honi. Engelsek ohartarazten zuen bezala, Ingalaterrako klase nagusiek hizkuntza bateratua egiten zuten, langileria dialekto differentetan mintzo zen eta ez zen kultur hizkuntzaren jabe. Eta abar. Lanera doan gizona lan aurretik ere ensemble sozial edo gizarte-bilduma dela, gizarteko harreman sare batetan dagoela, esaten zuen Marxek. Eta lanak harreman sare hortantxe aberastu behar duela. Baina sarea urratuta baldin badago, sozial bizitzaren komunikaziorik ez dago, langilea bere bakartasun zuloan gelditzen da eta ezin du gizarte bizitzan probetxuz parte hartu, ez bere burua gizarteaz identifikatu.

Gizarte baten batasuna modu askotan egon daiteke hautsita. Ez klase hausturaz bakarrik. Eta horixe da, hain zuzen, eskatzen dena : sujetuaren azterketa osatzea. Lan aurreko sujetuaren azterketa.

Marxek beti gogotik argiagertu ta destakatu du, gizona bere harreman sozialek egiten dutela. Ez zen horixe besterik adierazi nahi, honelakoak esanez : "konzientzia ezin izan daiteke sekula izaera kontzientea besterik, eta gizonaren izaera bere bizimodua besterik ez da". "Ez du konzientziak bizitza zer-nolakotzen, bizitzak zer-nolakotzen du konzientzia aitzitik". Bizitza, bizimodua : lan ihardun hutsa baino gehiago da hori. Lana beti eginbide soziala da. Lanean elkarturiko gizonak, lanera aurretik, mila modutako harremanak dituzte beren artean. Badute nortasun bat. Marxek ez ditu harreman horiek zehazkiago argitu (odolezkoak, usadiozkoak, hizkuntzazkoak, familiazkoak, arrazazkoak direla, esaten du). Hots, lanaren aurretiazko ta presupostu diren langilearen gizarte bizitza ta konzientzia, badirela esan besterik ez du egiten. Gizarte bizitzan gizonari benetako sujetu bilakatzea eragozten dion kausa anitz dago. Marx halako baten azterketan enplegatu zen. Psikoanalisiak eta eragozpen gehiago ere aipatu digute. Beraz, psikoanalisiak eta marxisma osatu beharko lukete (marxismen urtu edo marxismaren eraskin txosten bihurtu gabe, halare : bere autonomia gordez, psikoanalisiak aurkitzen dituen problema guztiak klase burrukaren ondorio soiltzat jo gabe hortakotz). Baina Marxek abiarazi zuen joera alderdikorra, Marx ondoren, marxistek (ortodosoek), osatu ordez, alderdikeria are beroagoz sistimaratu ta dogmatizatu dute. Era honetan gizonak berak eta historiak ekonomiaren produkto hutsak dirudite. Marxen beraren historia filosofiaz iritzi labur orokorrik ematea zaila iruditzen zait. Ez naiz hortan sartuko (gutienez H. Fleischer bezain polliki ibili beharko litzateke). Egun zabalkunderik duen historia filosofia sistimatiko bakarraz, oster, marxisma sobietarrarenaz, mekanizismo, ekonomismo ta teknologismo akusazioak jadanik korrienteak bihurtu dira. Althusseren luman bezalaxe kausitzen dira Garaudyrenean, eta Goldmannen izkiribuetan bezalaxe Poulantzasetan. Beraz, guztiok beren erako historia filosofiak bururatu dituzte. Baina puntu konkretu batzuekiko burutaerak dira, zatikazkoak, eta ez historia guztiari begira egindakoak. Korrienteena, bestalde, marxismo sobietarra da oraindik. Eta, gainera, kritika eginda badago ere, historia filosofia hartatik ateratzen ziren ondoriorik eta ikuspiderik gehienekin, deus gertatu ez balitz bezalaxe jarraitzen da. Ikuskera honen arabera historia produzio moldean ixuria besterik ez da. Sujetua ere pasibuki konportatzen da, itxuraz.

HISTORIAREN ARDATZA PRODUZIOA DA...

Ortodoxia horrek nolako moldakera dakarkigu ? Hauxe, hain zuzen : historiaren ardatza produzioa da. Esaldi hau, zehazkiago, honelaxe ebakitzen da.

. 1) Produzioak bi alde ditu : lantzeko materialarena ta lanerako tresnena. Hauk dira produzio bideak edo uztabideak. Hauk nolakoak, halakoxea produzio moldeak ere. Produzioan, ba, produzio moldeak (produzio bideak barnean) objetutzat har genezake.

. 2) Produzioa, aldiz, ez materialek eta ez lanabesek, ez dute berek bakarrik, burutzen. Produziorik izateko langilea behar da : produzio iharduketan sujetua gizona da.

. 3) Objetu haiek eta sujetu honek, denek batera, mintzamolde marxista eskolastikuan "produzio-indarrak" ohi deritzana ematen digute. Hau da, produzio indarrak beren sujetu ta objetutan banatzen dira.

. 4) Produzioa, orduan, produzio indarren iharduketa da. Gizon batzuek lanabes batzuek material batzuek lantzea. Aldian aldiko guztion egitama produzio moldeak da, produzio indarrek erabakia. Era berean produzio indar horiek erabakitzen omen dute historiaren ibilbidea.


Hau da, produzio moldeak zernolakatzen du aldian aldiko historia-aro bakoitza, gizarte bakoitzaren tankera bereberki : gizarte feudal, gizarte kapitalista, etc. Produzio molde bakoitza, berebat, bi erdik osatzen du : produzio indarrek erdi bat (eta produzio indarrak, esan bezala, materiala, teknologia ta langileak berak dira) eta gizarteko produzio harremanek, gizonon arteko zerikusi ta iharduki-menek, beste erdia. Produzio molde bakoitzari bere gizarte moldeak dagokio.

Hortan guztian gehien-gehiena iritzi arrunt hutsa da. Zenbait jenderi inpresio haundia egiten dio itxurazko "zehaztasun zientifiko" horrek. Baina, konzeptu aparatua konplikatu bat besterik ez da gehiena. Halare, konplikazio guzti hori ez da alferrikakoa. Ortodosiak, behintzat, beharrezkoa zuen ortodosia jasotzeko. Eta guk beharrezkoa dugu ortodosia ez onartzeko arrazoiak agerian jartzeko. Izan ere, zerk erabakitzen du gizonen arteko harremanen nolazkoa ? Hots, historiaren ibildea ta gizarte bakoitzaren tankera ? Produzio moldeak erabakitzen duela, esaten da. Produzio moldeak bera, ordea, bi partetan banatu dugu : produzio indarren eta produzio harremanen partetan, hain zuzen. Eta horra galdera : zerk eratzen ditu harremanok ? Zeren arabera antolatzen zaizkigu ? Produzio indarren arabera, omen. Eragileak produzio indarrak omen dira. Eta, eragin ere, produzio indarrok bai produzio harremanen moldaketa, bai konzientzia soziala ta bai "ideologiak" determinatuaz eragiten dute, irakatsi ohi denez. Dretxoa, politikabideak, artea, erlilioa ta dena. Produzio harremanak dira gizonen arteko beste harreman ororen oinarri, eta produzio harremanen beren oinarria produzio indarrak. Azken finean, ba, produzio harremanen beren oinarria produzio indarrak. Azken finean, ba, produzio indarrek erabakitzen dute gizarte bakoitzeko harremanen egitama.

PRODUZIO INDARRAK : LANGAIA - TRESNAK - TA LANGILEAK...

Baina produzio indarrak hiru ziren : materialak, teknologia (tresnak) eta langileak. Hiruron artean zein ote oinarritzakoa ? Historiaren eta gizarte antolaketaren oinarri-oinarrian dagoena ? Hemen hiruron arteko elkar eragite dialektikoa aipatzen da. Baina, eman ohi diren argibideeri begira, oinarri-oinarritzakoa teknologiak dirudi, produzio tresneriak. Tresneria aldakuntzak aldaerazten ditu gizarteko harremanak, gizarte tankera ta gainegiturak. Hau da, bere atzetik daramazki gizarte bizitza nahiz historia.

Produzio iharduketan honek mamitzen du barnea, tresneriak, produzio harremanek haren forma edo era konkretua agertzen dutelarik. (Orduan bidezko da, Althusserek eta, joera honi teknologista-mekanizista baderitza). Espelikabide horrek itxurazkoa dirudi, egiantzezkoa, honelako adibiderik ematen bada : egungo teknologiaz ez da esklabu gizarterik posible, etc. Dakigunez ere historia asko horrelaxe esplikatzen da : esklabu gizarteak xuxen-xuxen orduko produzio bideen eskasiak esklabutza onuragarri bihurtzen zuen artean iraun omen zuen ; eta esklabua "tresna" garestiegi ta enbarazotsu bilakatu zenean, ideologiak esklabutza inmoral deklaratu omen zuen, eta abar. Gurpilak gizarte feudala ekarri omen zuen, ehuntegi mekanikoak eta bapore makinak gizarte kapitalista, etc. Makineriak darama historia hortakoz.



Horri dean xinglekeria haundia bada, ez da sofisma tipiagoa. Ez noa teoria horrekin polemikan hastera, hortarako ordua pasatua iruditzen zait eta. Oharkizun arrunt pare batekin konformatuko naiz, Meakaberriri ta irakurleeri aski izanen zaielakoan. Konzeptualizazioaz eta errealitatearen juzkaeraz banan-banan aparte ari-tuko naiz, biak ez nahasteko.

PIRAMIDE BAT BURUZ BEHERA...

Esplikabide horrek piramide bat buruz behera dirudi : oinarria puntu bat besterik ez - sustrai bat, hain zuzen - goiena zabal-zabala ta aberatsa. Oinarrian, izan ere, produzio teknika dago. Hau nolakoa, halakoxea lan moldea ere. Hots, tresneriaren arabera moldatzen dira gizarteko harremanak : jabegoa ta dauzkagu hemen. Harremanok nolakoxeak, halako tankera hartzen du gizarteak : feudal, etc. Erakunde nahiz teoria politikoak eta juridikoak dauzkagu hemen. Klaseak, halaber. Hauen egoera objetibua nolakoa izan, beren filosofiak eta artea ta ere berdinak dituzu. Eskema horrek oso txukuna ta garbia dirudi, baina konzeptuetan bertan desegokitasun larri batzuk izkutatzen ditu. Gizarteko harremanen konzeptu hestuegia darabil, batik-bat : ia beti produzioko harreman bezala xoilik hartzen baitira.

Bestalde, gizonaren premia ta ihardun guztietan funtsezkoena ekonomikoari deritza. Eta hori eginez, ez da premien eta ihardueren artean hierarkia bat ezartzen bakarrik. Premia ta ihardun ekonomikoa beste ororen sustrai ta betiereko oinarri ere bihurtzen da. Ez da egia, haatik, gizarteko harremanen moldaketan sekso harremanak zerikusi asko du. Artegitza baino premia ta iharduera inportanteago izango da produzioa, baina ez da egia artegitzaren sustraia ta oinarria produzioan dadukagunik. Produzioak kanta edo dantza egin arazten ote dio, ba, gizonari ? Hizkuntzak harreman sozialetan biltzen eta adierazten dituen funtzioak, orobat, eta hizkuntzaren zerikusia gizarteko harremanen moldaketan, ez dago produzioaren eskabide bezala xoilik esplikatzetik.

"Herritasun" konzeptuan sartzen diren hainbeste ta hainbeste gauzek ere produzioarekin zerikusi gutikoa dirudite, eta produzio ihardunetik aparteko berezitasunik anitz badu. Eta, era batetan, gizonaren gorabehera guzti-guztiak produzioaren ikuspegiz bakarrik ez dira aski argitzen. Guzti horrengatik eta gehiagotatik, marxista moderno ia guztiek beste konzeptualizazio batzuk egin dituzte. Poulantzasek, adibidez, honela bururatzen digu "produzio molde" konzeptua : "Par mode de production on désignera non pas ce que l'on indique en général comme l'économique... Un mode de production, comme le dit de façon schématique Engels, comprend divers niveaux ou instances, l'économique, le politique, l'idéologique et le théorique..."

GIZONAREN KONZEPTUA MAILAKA EBAKITA...

Baina, batez ere, goiko eskema hortan gizonaren konzeptua mailaka ebakita dago. Horrela, gizonak, maila batetan hala bestean gauza liferentea dirudi : liferentea, alegia, produzio indar bezala, ta gizarte harremanetako gizon bezala. Areago, teknologia aipatzen bada, ez dago gizonan ahanzterik. Beraz, gizona "harreman sozialen bilduma" dela, eta harremanok produzio prozesotan produzio indarren ekarria direla, esanez, gizonok produzio prozesotan produzio indarren ekarria direla, esanez, gizonok produzio indarren objetu ta produkto direla, pentsarazten da. Esan ere horixe sarri esaten da : produzio prozesok egiten gaituela holako ta halako. Errealitatean, ordea, beste hau ageri da : bere harremanetan produzio indarrek "eginda" aurkitzen dugun gizona, produzio indarren emari hori, produzio indar nagusia ere bera dela, eta produzio indarren artean ere berbera "egile ta eragile" (produzio indarrak : materialak, erramintak, langileak : erramintak ere langileak egin ditu, noski).

Eta "egindako egile" hori, hasieratik bertatik, egindakoa izan aurretik, produzio indarren eraginaren produkto izan baino ta produzio harremanek moldatu baino lehenago, oinarri-oinarrizko produzio indar zen une beretik alegia, harreman sozial batzuetan zegoen : bere hizkuntza, usadioak, tradizioak, usteak eta lagunarteko harremanak eta zituen. "Kondizioek egiten duten gizon horixe berbera da kondizioen egilea ere". Bestelako gizon historikorik ez dago errealitatean. Hots, harreman sozialak baino lehenagoko edo "oinarrizkoago" gizonik. Herritasunik edo

baino lehenagoko langilerik, adibidez. Esplikabideotan, hortakotz, bi gizon suertez jokaten dira. Produzio indarretako gizona, historigintzaren oinarri-oinarrikoa : ekonomiko hutsa, dirudienez oraindik harreman sozialetan josi gabe ; ta, honen gainean, produzio harremanetako beste gizona, harremanok itsasten dioten guztiarekin, ideologia ta beste.

Gizona bi mailetan ebakita dago. Bai oinarrian eta bai gainegituretan dago, baina liferentea da bateko ta besteko gizona. Oinarrian, determinatzaile oraindik determinatu gabeko bezala, konzientziarik ere gabe itxuraz (baina teknologiaren asmatzaile jadanik!), langile xoilxoil. Produzio harremanetan eta gainegituretan beste gizon bat, produzio indarrek determinaturik, produzio indarrek erabakitzen dioten konzientzia moldeaz, eta abar. Lehenengo mailan "gizon abstraktua" -langile ta tresnagile hutsa- ta bigarren mailan zu ta ni, gizaki historikoak.


Makina bat ondorio ekarri du gizona mailaka ebakitze honek marxismaren juzkaeretan. Hortik sortu baitira "langile hutsaren" asmakizun guztiak : nazio-tasunik gabeko langileak nahiz derrigor klaseren batena omen den artea, esate baterako. Bi puntuok Euskal Herrian eskandaloa frango zabaldu digute. Hortik dator, orobat, zenbait arazo politiko produzio molde jakin batekin lotzea ere : nazio arazoa burgesiarekin, adibidez. Hau da, errealidadean jartzen diren mailak eta historian asmatzen diren etapak oro. Maila eta etapa horiek ez baitira errealitatean ikusi ta hauteman, goiko abstrakikuntza hartatik ondoriozkatu baizik. Atera ondorioak.

Baina, hainbesterekin hobe dugu propagandako marxismara iragatea.

PROPANDAKO MARXISMARA IRAGAN GAITEN ...

Propagandarako erabiltzen den marxismak beste tankera bat du. Xinpleagoa, ta are objetibistagoa. Historia filosofiako zehaztasun zail guztiak baztertu ditu. Izan ere, teoria hori salbatzeko kasuistika bihurri asko egin behar izan da. Gainegiturek oinarrian atzera duten eragipena esplikatzeko, adibidez, gainegiturek beregaintasunik badutela esaten da, hori nondik nora datorren argitzea zaila bada ere. Erljioak eta, jabegorik gabeko gizarteetan ere bizirik irauten baitute, aitzinateko hondakintzat jotzen da hori. Stalinisma esplikatzea zailago da, batez ere iraultza sobietarreko "nahitaezko gertaera" bezala esplikatzea. Baina, libertateari berari ere nahitaezkoa ohartuki egitea deritza (nahitaeza bera, aldiz askatasunari erreferentziazko konzeptua da, erlaziozkoa) : eta nahitaez beteko dena betearazteko, ikaragarritzko iraultzak eta hilketak ere ontzat ematen dira (helburua lehentxeago betetzearren bakarrik !). Ez dakigu mendebaleko ekonomia sozialisma "berez" ekartzeko haina aurreraturik noiz egongo den. Eta abar. Baina, horiek marxisma ortodosoaren non nahiko problemak dira. Euskal Herrian "objetibismo" faltsu horrek beste problema batzuk sortu dizkigu. Eta nik horiek zehazki kondatzeko premiarik Meakaberrik ez du, agi denean.

Historia, erloju bat bihurtu da : problema bakoitzak bere ordua du. Nazio arazoak, adibidez, burgesiaren ordua. Edozein gatuk ikasi du "izaerak mugatzen duela pentsaera, eta ez, alderantziz, pentsaerak izaera". Beraz, euskal jenderiak askatasun politikoa askatasun nazional bezala ulertzen eta nahi badu, burgesiaren kutsapenez da. Sujetibismo gaizto bat. Langileen izaerak zinez eskatzen duenak, bestelako kontzientzia izan behar omen bailuke. Euskal literatura burgesa da, noski. Euskara burgesiaren tresna da. Arteaz ari gara ? Gure marxistek dakiten guztia da, ekonomiak determinatu duela. Besterik ez dakite, baina hori beti dakite. Kultura ta arte proletarioak sortu behar dira. Problema guzti-guztien gakoa produzio moldean dago. Ta problemaon atarramentu onik ez dago produzio moldean irauli arte. Hori da lehenengo zeregina.



EGUN KULTUR ARAZOAK DUEN GARRANTZIA EUSKAL-HERRIAN.

Egunotan kultur-arazoak berebiziko inportantzia du Euskal-Herrian. Bidezko da. Eta bidezko da, horregatixe, sortu diren eztabaidetan joanetorri bizi-bizikoa izan badugu, goian aipaturiko "bi gizonen" gorabehera hura. Nazio arazoan berdin.

Norbaiten iritziz historiaren aurrerapidea ekonomiak urratzen du. Eta ekonomiak, bere bidean, Euskal Herria erdi bana, Espainia ta Frantzia bihurtu badu, jadanik ez dago "atzera jotzerik". Euskal Herria Frantzian eta Espainian "integratzea" aurrerapena da ta herri honentzat positibua. Ekuspide honetan on ta gaizto zer den jakiteko irizpidea ere ekonomia da. "On ta gaiztoren" haundikaldetik, ekonomia. Baina, gizonon gainetik ere bai.

Kulturaz iharduterakoan, euskal kulturari buruz mila klasetako ta maila askotako problemak daude, baina gainegituren planteamalde klasikuen ta ortodosoena besterik ez diogu euskaldun marxista askori aurkitzen (hemengo egoerak bene-benetan besterik ere eskatu arren). Honelakoak barra-barra predikatzen dira, hortakotz : horra hor ontasunak ; horien jabegoa pribatua denez gero, jabegoak moldatzen ditu jendearen arteko harremanak (klasezkoak) ; harremanon araberako kultura sortzen da : klase kultura. Beraz, kultur lanik behingoena Euskal Herrian jabegoa porrokatzea genuke. Beste guztia, dirudienez, klase kulturaren mugetan ibiltzea da, ta burgesiaren jokoa egitea. Jakina, klasetasuna baino lehenagoko kulturarik ez baldin badago, klasetasuna baino lehenagoko irakurtzen eta idazten jakiterik ere ez dago...

Klase ikuspidearen inportantzia ukatzerik ez dago. Baina, alderdikeria ta aldebakarkeria dogmatiko batetan amildu beharrik ere ez dago. Eta, beraz, euskal kulturaren arloan klase ikuspidez zuzen baliatzen ikasi beharra dago. Klase ikuspidea zuzen erabiltzeko, berriz, ekonomiaren lehentasuna absolutu ez bihurtzea da lehen-lehenengoa. Horren ordez, eskemarik ortodosoena aurkitzen dugu non nahi : lehenengo mailan produzio indarrak, bigarrenetan produzio harremanak (jabegoa, klaseak), hirugarrenean kultura. Esan izan denez (eta ez digu inporta zeinek esan duen) : "Kontraesanez betetako errealitate hustel honetan, funtsezkoa kontraesan ekonomikoa" da. "Kontraesan ekonomikoa dugu, azken finean, kontraesan kulturalaren sorrerazle". "Kultura kontraesanaren gaintzeak kontraesan ekonomikoen gaintzeak eskatzen du".

Eta hona hemen garbi baino garbiago hiru mailak : "Honetan ez da dardarik. Kontraesan ekonomikoak kontraesan sozio-politikoari ateak iriki badizkio, eta

honek kultura kontraesana sorrerazi badu, kontraesan ekonomikoa suntsitu ahal izateko bidea lehengoaren aitzitikoa dela. Kultura kontraesanetatik abiatuaz sozio-politikora pasa, hemendik, azkenik, ekonomikoa jaurtitzeko". Sarri erantsi ohi denez, objetibua ekonomia ta beronek dakartzkien gizarteko harremanak dira. Kultura sujetibua da. Eta gizarteko harremanak eta ekonomia irauli gabe kultura arazoak hurrubidatzen saiatzea sujetibisma hutsa da. Guzti hau goiko gizona bi partetan partitze harekin lotu-loturik dator. Eta guzti horren kontra goiko gauza berbera gogarazi behar da : kultura baino lehenagoko ta oinarritzakoago ekonomiarik ez dagoela.

Esaten den guztia egia da. Baina, justu-justu egiaren erdia da ta euskal marxisma justu-justu erdi horrekintxe gelditzen da beti. Izan ere, klase kulturari bagagozkio, egia da, jabego erlazioak haren oinarri objetibuak dira. Baina, jabegoari berari bagagozkio, beste maila batetan, beste ikuspegi bat harturik, egia da orobat jabegoa bera ere sujetibua dela, kulturala dela. Jabego-kontzientzia baino lehenago, hots, jabego-kultura baino lehenago jabegorik ere ez da posible. Jabegoaren kontzientziarekin hasten da jabegoa ta jabegoarekin hasten da jabego-kultura. Biak batera.

Eta berdin-berdin, produzio harremanetako ta jabego hauziko klase kontradiziorik ere ez dago une berean aurkitzen dugun kontzientziako (hots, kulturako; hots, sujetuaren aldeko) kontradizioa gabe. Ez jabegoa, ez produzio harremanak, ez ekonomia ta ez ezer ez da, bere sujetu konkret-konkretua gabe. Jabegoa, jabegorik eza bezalaxe, kultura da. Ekonomia kultura da. Eta guztion autoreea den gizakia izaki kulturala da, gizon den une beretik bertatik. Eta kultura - hots, pentsamendua, hizkuntza, lana - beti gizartekoa, soziala da !

Berriz ere, Marxenera gatozkizu. Lanari ekin aurretik gizona gizarteko harremanez josita dago. Harremanok ekonomiaren aurretikazkoak dira. Ez ondorio bakarrik. Eta harreman hitzari esanahirik zabalena ematen diot. Gizon izatea harremanak izatea da, produzio harremanak baino "lehenagoko" harremanak hain zuzen.

Dialektika ahantzi ez duenarentzat horiek denak begien bixtako gauzak dira, apika. Baina, dialektika aspaldi ahaztu zen. Sujetua aspaldi ahaztu zen. Eta egunotako marxismaren, Neomarxismaren, ahaleginak, hain zuzen, hai dialektika eta bai sujetua berrirabazteko dira. Nazio arazoazkoan ere sujetu aldea aipatzeak asmo horrixe obeditzen dio.

SUJETUARI GEHIAGO BEGIRATZEN DION MARXISMA BAT NAHI DUT...

Halare nik sujetuari gehiago begiratzea ez dut nazio arazorako bakarrik nahi, marxismarentzat berarentzat eta marxisma guztiarentzat baizik. Sujetuari gehiago begiratzen dion marxisma nahi dut. Eta uste dut marxismaren nazioarteko bilakaera edo eboluzioa ere bide hortatik doakigula.

Izan ere, ez da nahikoa nazio arazoaren ulerpide marxista egoki bat lortzea. Eginkizunik larriena horixe dugu, dudarik gabe, gure kenka honetan. Marxisma klasikuak nazio arazoaren planteamolde eskasa baitzuen. Hori erremediatu beharra dago. Baina, kulturaren artearen edo literaturaren planteamolde hoherik ere doi-doia zuen, ikusi izan dugunez. Eta problemari orokortasun horrekin begiratu ta planegin behar zaio. Marxisma nazio arazora mugatu gabe. Nazio arazoaz marxismaren eskasiak nondik datozen argitzea inportantea da. Baina ez aski. Problemaren zati bat da. Orduan, nazio arazoaren planteamoldeko eskasiak eta hauen iturburuak berbertatik eta muga-mugatuki azterkatzea, kasu konkretu hortaraxe mugatuz, txalogarri da zinez, baina ez da dena.

Urrunagotik heldu behar zaio problemari, sustraitikago. Eta nazio arazoan bezalaxe beste hesparruetan ere erabilgarri den marxisma bat bururatu behar da. Euskal Herriko ta Euskal Herrirako marxisma. "Nazio arazoa ta marxisma" dugu

aspaldian gure buruhausterik mingarriena. Baina, ia beti nazio arazoaren aldetik hartu dugu problema hori, neurri hortantxe axolatu gara marxismaz, marxisma bera ere, bere aldetik eta nazio arazoa aparte, problema dela ohartu gabe. Nazio arazoa inportantea da, bai, baina marxisma bera ere bada zerbait. Nazio arazoazko geure marxisma desarroilatzen ari garen artean, beste arazoetarako marxisma zahar-zaharkitu bat gelditzen ari zaigu : gure marxisma ez da nazio arazoaz besterik arduratzen eta. Horrela bakarrik konprenitzen da, nazio arazoan marxisma klasikuari gain hartu dion zenbaitek, antiortodoso zenbaitek, kulturaren planteamoldetan, esate baterako, planteamolderik ortodosoenekin eta klasikuenekin segitzea.

Sujetu aldea nabarmentzeko enpeinua orokortasun hartan gelditzen da. Problema konkretuetarako ez da aski konkretu. Gero, ba, nazio arazoa, edo kultur arazoa, bakoitza bere propietasunen arabera zehazkiago aztertu beharko da. Baina, azterkariak beti ere guztiok ekonomiaren moskol baino gehiago direla, konduak atera beharko ditu.

Sujetuaren aldea egon badagoena, marxismak beti aitortu du, klasiku eta ortodosoenak ere. Gertatzen dena da, praksian nahiz teorian, inportantzia guti eman diola ta guti landu duela. (Sujetu aldea zabartzea zertan ageri den, zeren ondorio den, zein ondorio duen, eta abar, osokiago azaldu beharko litzateke. Baina, hemen ez dago osotasunetarako astirik). Neomarxismak, aitzitik, horixe bereberki lantzen du. Sujetua azterkatuz, ba, neomarxistek presunaten, hizkuntzaren, ideologiaren, erlijioaren beraren inportantzia argitu nahi ligukete. Ez dago jarraitzerik horiek denak ekonomiaren "epifenomeno" hutsak direla pentsatzen, produzio prozesuaren gandor edo kukurustak baizik ez direla.

HERRIALDE BAKOITZAK BERE SOZIALISMARAKO BIDEA DUELA...

Teoriak egunotan hortik jo badu, mendebaleko mugimendu komunistak ere bide horri ekin diola, iruditzen zait. Gizonari gehiago begiratu behar zaion leloa bazter guztietan entzuten da. Pragako gertaerek eta Dubceken zorigaitzak "sozialisma humanistaren" ideia ez dute ahantzarazi. Ezta Txileko trajeriak ere. Herrialde bakoitzak bere sozialismarako bidea duela ta Alderdi Komunistak beregaintasun bila dabilta, behinolako bloke monolitismarik gabe. Errusiako Iraultza ta Mendebaleko Iraultza ez dira inola berdindu nahi. Aitzitik, egin ahalak egiten dira bion ezberdintasuna erakusteko. "Gure Iraultza bestelakoa izango dela", sinetsarazi nahi digute denek, Italian ala Frantzian. Eta ez nazio hauek industria maila ta modu liferenteak dituztelako bakarrik, ez.


Gramscik Italiako tradizio humanista aberatsa aipatzen zuen : hori gogoan harturik, Italiak sozialismarako bere bidea eraman behar lukeela. Frantziako tradizio demokratikuak aipatuz, prentsa ta politika askatasunik ez dela galduko, segurtatzen dute komunistak frantsesek. Beraz, Italiako ta Frantziako historiaren eta mentalitateen araberako Iraultzak agintzen zaizkigu. Espainiako Alderdi Komunistak bide beretik sartu da. Eta ondo egin du. Mugimendu unibertsal bat baita hori. Lukacesek ekaiari buruz-buru kontzientziaren autonomia askatu zuenean errebisionisma leporatu zitzaion. Horra, ba : errebisionisma hura guztiz nagusitu da. Eta arrazoinez. Historia egin behar duten eta egiten duten gizonak ez baitira berdinak - produzio faktore hutsak eta berdinak - Txinan ala Frantzian, Errusian eta Portugalen. Gizon horien "kontzientziak", batik-bat, frango desberdinak dira (har dezagun kontzientzia hitza ere bere esanahirik zabalenean). Eta politikan eragipenik duen faktore oro, kontrola daitekeen oro, kontzientzia hortan barna heltzen da eragile izatera.

Egia esan, marxisma abertzalerik lortu duten guztiak, eta marxismaren aurka abertzaletasunari eusten dioten gehienak ere, hortantxe ari dira. Sarrailh Ihartzakoa, adibidez, ez da alferrik arizan euskararen eta euskal kulturaren inportantzia erakusten. Bestalde, deskoloniapenaren interesgarriena horixe iruditzen zait. Ez tesiren bat ala bestea. Agertzen duen joera orokarra baizik. Interesgarriena

ez da kasuotan nazio arazoari edo eman zaion irtenbidea bera hitzez-hitz (dogmatismo berri batetan erortzea litzateke hori). Bai, ordea, honoko beste hau : eskema klasiko ta mekanikoak hautsi direla. Ho Txi Minhen edo Maoren nazio arazoazko tesiak berak baino interesgarriago da, nire irudiz, teorizatzeoan erakutsi duten independentzia. Honek Leninentzat berdin balio du. Eta Santiago Carrilloentzat ere bai.

Independentzia hori agian ez da nazio arazoaren planteamoldean bertan gehiena ageri. Marxismaz baliatzeko haien modu arruntean hobeto ikusten da. Carrillo, Marxen eta Engelsen pasarteak ahotik dariola dabiltzanen kontra mintzo da. Marxen eta Engelsen teoriak independentziaz hartu behar direla, esan ta esan ari da. Eta marxismo European baraturik badago, Leninen honixe deritza erremedioa : "investigar, estu-di-ar, descubrir, adivinar, comprender lo que hay de nacionalmente particular, nacionalmente especifico... Aplicar los principios acertadamente a las particularidades nacionales y politicas de cada Estado".

Estatu esaten den tokian herri edo nazio esango genuke guk. Baina, Carrillok Estatu esateko ta guk nazio esateko bidea berdintsua da : historiari ekonomia-ren programa mekanikoa zeritzan ikuspidearen baztertzea, batetik, eta sujetu berezia-ren autonomia onartzea, bestetik. Carrillok sujetua Estatutan mugatzen badu, eta guk herritan, sujetu mugaketa da problema. Hor hasten da politika konkretua. Mugaketa honetan, aldiz, ez Carrilloentzat eta ez guretzat, ez daitezke izan arrazoin ekonomikoak arrazoin bakarrak. Carrillok Espainiari (Estatuari) bere planteamoldea ta bidea zergatik dagokion, erantzun beharko du. Eta guk Euskal Herriari berea zergatik dago-kion. Baina, euskal marxismak, hein honetan, Carrilloren joera berean ibili beharko du.



MARXISMAREN ZATI ON BATEK EZ DIRUDI EUSKAL-HERRIKOA DENIK...

Stalinismaren ideologia izandako sasi-objetibismaren ondoren, bidezko ta zuzen da, ta behar-beharrezko ere, orain sujetu sozialaren aldea ta berezitasunak aintzakotzatago hartzea. Sujetuaren aldea delakoxe, sujetu bakoitzak bere alde propioak, bereziak, agertzen ditu. Italiarrek Italiakoak, frantsesek Frantziakoak, eta espainolek Espainiakoak. Hori, normala da. Anormala, euskal marxismak berdin ez jokatzea litzateke. Eta hala da. Izan ere, marxismaren zati on batek Euskal Herrian ez dirudi Euskal Herrikoa denik, ez dio euskal sujetuaren aldeari deus begiratzen. Barreiatu den marxismo, horregatik, anakronismo hutsa da.

Anakronisma are hutsago, ikusten duguna ikusita : marxista horiek berak marxista espainolekin eskuz-esku, hain zuzen. Baina, marxista espainolek Espainiari begira egiten ari direna, berak Euskal Herriari begira egiten ez dira hasi ere. Hor ikusten da, zakurra nagusiari atzetik zintzo-zintzo darraikiola. Haiek, berentzat egiten dutena ez dute gurek guretzat egiten. Halare begien bixta-bixtan dago, euskal berezitasunak landuko ta argituko dituztenak, ez direla marxista espainolak eta frantsesak izango. Euskal marxisma honen kontradizio bat burgesiarekiko arazoan ikusten dugu. Ikastoletan burgesiak eskurik baduela ta zeruak eta lurra astindu dizkigute. Euskal abertzaletasun orok burgesiarekin bat egiten duela ta ez dute abertzaletasunaz ezer jakin nahi. Izugarri "proletarista" dira, lurralde honetan. Baina, une berean Espainian burgesiarekin fronte antifaxista ba egiteko amorratzen daude.

Beste euskal marxisten batzuek, "carrillismari" ihes egitearren, beharbada, ortodosia radikalizatu batetara jo dute. "Erabateko Iraultzaz" arduratzen dira, ez dute inolako konpromisorik onartzen. Nazio arteko marxismak azkeneko hogeitete honetan nondik nora jotzen duen ikusirik, enpeinu radikalista hori sekta batetatik ez dela pasako, pentsa daiteke.

Irteera bakarra, nik uste, hauxe da : iraultzaren sujetu izateko hemen herri bat egoteak, bere egoera konkretuaz eta berezitasun propioez, egoteak, zer esan nahi duen, argitzea.

SASI-OBJETIBISMA HORREXEK EUSKAL-HERRIAREN BATASUNIK EZIN IKUSI DU...

Hauxe da nazio arazoaz iharduterakoan sujetu aldea aipatzeko arrazoia. Horra mintzamolde hau nondik datorren, zergatik erabiltzen den eta zein esanahiez erabiltzen den. Frantzia Iraultza egin nahi dutenek beren kontzientzia demokratiku berezia ta Italian beren tradizio humanista berezia hain inportantetzat badituzte, hau da, beren propiotasun frantses eta italianoak (esate baterako Errusiak ez zituenak), zergatik Euskal Herrian euskal propiotasunak ez aintzakotzat hartu? Marxista italianoek Dante goresten dute. Frantsesek Pascal estudiatzen dute. Eta komunista euskaldunek, beren aldizkari kulturallean, "Homenaje a Cervantes" publikatzen dute : Don Quijote de la Mancha guztiz espainolaren irakurraldi zuzenerako argitasunak.

Sasi-objetibisma horrexek Euskal Herriaren batasunik ezin ikusi du, ta Ipar eta Hego aldean batasuna ukatzen ere du politika mailarako. Frente abertzaleak, euskaltasunaren aitzakiaz, proletargoa ta burgesia uztartuko lituzkeela, salatzen du. Ekonomia historiaren jainkotzat harturik, honelako tesiak borobiltzen ditu : "La asimilacion vasca en el Estado Nacional Español, que es una asimilacion vasca por el capitalismo, constituye sin duda un progreso historico" (Saioak 2). Historiaren determinisma mekanizista berdinez, nazio arazoaren garaia burgesiaren garaiarekin batera pasa zela, irakasten du. Eta hori dena "objetibu izan behar omen delako".

Beste askoren ustez, aitzitik, benetan objetibu izateak tokian tokiko sujetua, jendea, den bezalaxe, bere historia osoarekin eta bere problemekin, hartzea eskatzen du. Jokabide objetibua sujetua ez ahanzte da. Eta sujetu honi, bere klasetasuna bezalaxe, bere herritasuna ikusi behar zaio. Gizarte baten "interes objetibua" ez da aurrerapen ekonomikoa bakarrik, Gatazkak esaten zuen moduan baizik, "el desarrollo armonico e integro de la cultura, lengua instituciones, etc., hacia su total emancipacion, y no solo el desarrollo de las fuerzas productivas". Orain esaten den bezala, gizona langile baino gehiago da.

Oker ez banago bereizkuntzaok egin litezke : objetibu - objetibista, sujetibu - sujetibista.

Era honetan "faktore sujetibu" bat sujetuak duena litzateke. Sujetuari objetibuki datxekona. Hots, ez da nahitaez faktore sujetibista, sendimenduek edo emana. Nik, horregatik, "sujetibu" hitzak sor dezakeen errezeloa ezagutuz, "sujetuarena" ere sarri esan izan dut, nahasketak alderatzearen.

EZ DA GIZON HUTSIK - EREMU ASKOTAKO INGURU BATI LOTUA DA.

Hona hemen adibide batez azalduta, errazago ta garbiago : ez dago gizonaren esku bere inguruko eremua. Eta errealitate guztiz objetibuak esplikatzen digu, metalurgiak Bizkaian irabaztea eta ez Araban. Itsas industria Lapurdin kausitzea ta ez Xuberoan. Errealitate objetibu berak badu zerikusirik, inguru hartan sortu diren gizarte harremanak esplikatzen ere : klase burruka latza Bizkaian, giro patriarkala ta erdi-feudala Araban. Artzainek eta itsasturiek ipuin, uste ta mito liferenteak badituzte, hori ere ez da zaila guztiz "objetibuki" esplikatzea.

Bestalde, ordea, menditar, metalurgiko edo arrantzale hori, naturalezarekin bezalaxe gizarte historiko batekin harremanetan dago, eta euskaldun izan daiteke, ala tuaregh, zuri ala beltz, gizon ala emazte. Eta, nolana ere, inoiz ez da gizon hutsik, tankeraren batetakoa baizik : bere arraza, hizkuntza, sexu ta besterekin. Hori sujetuari objetibuki datxeko, sujetuak berezkoa du. Edo, Marxek esaten zuen moduan esateko, naturalezak determinatua du, inguruko eremua ere naturalezak determinatu dion bezalaxe. Bai naturalezarekiko ta bai bere gizartearekiko harreman horiek determinatzen dute gizakia produzio-indarririk izateratu baino lehenagotik ere. Sujetuaren berezitasunok ez dute beti planteamolde politiko berezirik eskatzen. Problema direnetan bakarrik eskatzen dute hori.

Adibidez, klase burrukaren teoria egiterakoan ia inoiz ez zaio "emazte arazoari" planteamolde berezirik propio egin. Egun, aldiz, egin beharrezkoa dirudi. USA-n ez dago proletargoaren planteamolderik, azal kolore beltzaren planteamolde berezi bat propio egin gabe. Zairen, aldiz, beltzak han ere badira, baina zorakeria litzateke azalaren koloreari begiratzea. Perun eta Bolivian indioaren problemari planteamolde propio bat zor zaio, noranahiko eskema unibertsalak nahitaez aplikatzen enpeinatu gabe. Klase burruka Estatu mugen barruan egiten den artean, herritasun arazoak ez du arrunki planteamolde propiorik eskatzen. Batzutan eskatzen du : Espainian eta Frantzian, adibidez. Errusian ere eskatzen zuen.

Baina, nola planteamolde propiorik lortu, sujetua "objetibuki" zer-nortzen duena "produzio ihardunetan okupatzen duen tokia" besterik ez bada ? Hori bada bat determinatzen duena ? Toki horren arabera, izan ere, beltz ala zuri, euskaldun ala frantses, gizon ala emazte, liferentziarik ez da. Horixe da, hain zuzen, sasi-objetibisma klasikuari kritikatzeko dioguna : sujetu konzeptu erabat murrizta. Sujetu horiek produzio iharduneko beren tokiak bakar-bakarrik definitzen dituen presuna antzeko gauza hutsak baitira : ez har, ez eme, ez euskaldun eta ez ezer. Eta hori objetibu ta konkretu izan nahi duen teoria batek egiten digu. Koloniako ala metropoliko proletario, proletario aleman ala proletario judu aleman Hitleren menpean, dena berdina da.

BUKATZEKO OHAR BATZUK...

Bukatze aldera noa : gure egoeran sujetu/objetu gorabehera planteatzearen balioaz eta beronen mugetaz ohar batzuk egingo ditut.

Nire ustea laburki ematekotan haxe esango nuke : bere balioa, marxisma ortodosoaren aurka balio lezakeenean ikusiko nuke, negatibuki. Positibuki, planteamolde berri batetarako ikuspide berriak irikitzean. Mugarik nabarmenenak :

gure problema konkretuetarako arruntegi, orokorregi izateak ezartzen dizkionak, iruditzen zaizkit. Sujetuari zor zaion moduan begiratzeak, besterik gabe, ez dakar tesi politiko jakinik. Batez ere, ez digu zuzentzen marxisma abertzalearen eta marxisma "espainolistaren" edo "jakobinoaren" problema oker hura. Planteamolde hau ez da, bera soilik, azkeneraino heltzen : eginbide jakin bat markatzeraino. Sujetu aldea nahi bezanbat azpimarkatuz ere, PCE-ak eta PCF-ak, VI-gn Asanbleak eta IV-gn Internazionalak, beti ere posible izango dira, alde honengatik bakarrik.

Beraz, osapen konkretua falta zaio. Halare egia da, marxisma abertzaleak, bere lehen-lehenengo egunetik, sujetu aldeari marxisma tradizionalak baino gehiago begiratzen diola. Eta nahitaez sujetu aldeari biziki begiratu beharko diola. Batez ere, munduan produzioa ta klaseak besterik aintzakotzat hartu nahi ez duten planteamolde "objektibista" batzuei gain hartzeko presupostua sujetu aldea baliaberritzea da. Monisma mekanizista gaingartzeko objektuarekin batera sujetua hartu beharko da. Produzio indarrek determinatzen duten klasearekin batera, produzio indar gertatzen den herri-gizartea.

Euskal marxisma Europa guztikoarekin batera joan izan balitz, eta bere nortasun apurrik lortu balu, kulturaz eta, segurik, ez zen esango, esan izan den zenbait zorakeria. Folkloreaz, euskal kanta zaharrez, euskara lantzeaz eta abarrez ere. Ezta abertzaletasunaren "burgeskieriaz" ere. Ezta jendeari euskaraz irakurtzen eta idazten irakaste "hutsaz" ere. Guzti hortan ezagutu dugun eta oraindik ezagutzen dugun sasi-objektibismo, izan ere, inongo marxismarik arloteenaren apoteosia da. Norbaitek ederki esan zuen moduan : betiko euskal integrisma besterik ez, "anitz bernizadura eta apaingura" marxistaz jantzita. Beraz, sujetuari artaz begiratzetik bakarrik ez dut espero bertanbera marxisma abertzalea etorriko zaigunik. Zenbait marxisma antiabertzale ixiltzea esperoko nuke, halare. Itxurazko marxisma espero dut bakarrik. Beste nonahi aspaldi ahantzi ziren ekonomismo ta proletkulturalismo hesturik gabe. Munduko edozein lekutan edozein marxista burutsu bezalaxe, gure marxismo ere, kulturaz, abertzaletasunaz, euskaraz eta zernahi bestetaz, ulertitezkeen eta errespeta litezkeen iritziz ager dadin.

Gero, abertzaletasuna zuzenesteko ala gaitzesteko, problemaon berezitasuneri, xehekiago begiratu beharko zaie. Kultur arazoaren planteamolderako kultur arazoaren berezitasuneri begiratu beharko zaie bezalaxe. Sujetuari begiratzeko eskabideak betiko eskema topiko batzuen oinarri-oinarritzko akatsa salatu nahi du, besterik ez. Sujetu aldeari begira, Europako Alderdi Komunistek, beren zeregine-tako planteamoldeak aldatu ta eraberritu badituzte, nazio arazoaren planteamoldea ere aldatu ta eraberritzea bidezko besterik ez bai litzateke. Euskal Herrian, behintzat, ez da marxismaren berriztapenik posible, nazio arazoaren planteamoldea berriztatu gabe.

Bestalde, solas korrienterako nik neuk ez nuke gomendatuko objektu ta sujetu konzeptuen usadio haundirik. Batere premiarik gabe gauzeri abstraktu itxura zaila ematea da. Eta, gainera, solas biziaren joanetorrietan, sujetu hitzaren kutsu negatibuak bere hortan jarraituko du, filosofoak sujetutasunaren gorazarretan baliatu arren. Eta berriz ere asko izango dira, Meakaberrik bezala, "sujetibu" irakurri edo entzun eta "ez objektibu" ulertuko dutenak.

Beste arrazoin, inportanteago bat : sujetu/objektu problematika planteamolde konkretuetarako hitzaurre bat besterik ez zela. Eta honez gero, hitzaurretik pasata gabiltza.

Jose AZURMENDI